**Zk-2321**

AGINDUA, 2004ko apirilaren 21ekoa, Kultura sailburuarena. Honen bitartez, beharrezko egokitzapenak egiten dira nazioarteko kirol-gertakariak eta kirola zabaltzeko jarduerak burutzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duen Kultura sailburuaren agindua 2004ko ekitaldian aplikatu ahal izateko.

Euskadiko aurrekontu-araubideari buruz indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuaren IX. Tituluan ezarritakoari jarraituz, abenduaren 23ko 317/2003 Dekretua eman zen Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren konturako laguntzak eta diru-laguntzak arautzen dituzten xedapen batzuen indarraldia luzatzeari buruz. Horren arabera, Jaurlaritzak, sailek eta erakunde autonomiadunek epeak, baldintzak eta eskakizunak egokitu ditzakete agindua 2004ko ekitaldian aplikatu ahal izateko.

Kultura sailburuaren ekainaren 18ko Agindua eman zen 2003ko ekitaldian nazioarteko kirol-gertakariak eta kirola zabaltzeko jarduerak burutzeko diru-laguntzak emateko modua arautzeko (2003ko uztailaren 7ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 132. zenbakia). Beraz, bidezkoa da epeak eta baldintzak egokitzea agindu hori 2004ko ekitaldian aplikatu ahal izateko.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

*1. artikulua.–* Eskabideak aurkezteko epea.

Nazioarteko kirol-gertakariak eta kirola zabaltzeko jarduerak burutzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duen 2003ko ekainaren 18ko Aginduko laguntza-deialdian 2004an parte hartu nahi dutenek hilabeteko epea izango dute eskabideak aurkezteko, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

*2. artikulua.–* Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

Agindu honetako diru-laguntzak eskatzeko interesatuek eskabidea Kultura sailburuaren 2003ko uztailaren 18ko Aginduan, nazioarteko kirol-gertakariak eta kirola zabaltzeko jarduerak burutzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena (2003ko uztailaren 7ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 132. zenbakia), dagoen eranskineko eredu normalizatuaren arabera bete behar dute eta, eskatutako gainerako dokumentazioarekin batera, Kirol Zuzendaritzan aurkeztu, zuzenean edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren

**N°-2321**

ORDEN de 21 de abril de 2004 de la Consejera de Cultura, por la que se adapta para su aplicación durante el ejercicio 2004 la Orden de la Consejera de Cultura por la que se establecen las normas que regulan la concesión de subvenciones para competiciones deportivas de carácter internacional y actividades de divulgación deportiva.

Al amparo de lo establecido en el Título IX del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, se dictó el Decreto 317/2003, de 23 de diciembre, sobre ampliación de la vigencia de determinadas disposiciones reguladoras de ayudas y subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, pudiendo, a tal fin, el Gobierno y los distintos Departamentos y Organismos Autónomos adaptar los plazos, condiciones y requisitos necesarios para su aplicación durante el ejercicio 2004.

En el ejercicio 2003, se dictó la Orden de 18 de junio de 2003, de la Consejera de Cultura, por la que se establecen las normas que regulan la concesión de subvenciones para competiciones deportivas de carácter internacional y actividades de divulgación deportiva, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco núm. 132 de 7 de julio de 2003, por lo que procede la adaptación de los plazos y condiciones necesarios para la aplicación de la referida Orden durante el ejercicio 2004.

En su virtud,

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes para acceder a la Convocatoria de ayudas establecida por Orden de 18 de junio de 2003, por la que se establecen las normas que regulan la concesión de subvenciones para competiciones deportivas de carácter internacional y actividades de divulgación deportiva, en el ejercicio 2004 será de un mes a partir del día siguiente a la publicación de la presente.

*Artículo 2.–* Solicitudes y documentación a presentar.

Las personas solicitantes de las ayudas a las que se refiere la presente, deberán dirigirlas conforme al modelo que se incluye como anexo a la Orden de 18 de junio de 2003, de la Consejera de Cultura, por la que se establecen las normas que regulan la concesión de subvenciones para competiciones deportivas de carácter internacional y actividades de divulgación deportiva, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco núm. 132 de 7 de julio de 2003, junto con la documentación allí exigida a la Dirección de Deportes, bien directamente, bien por cualquier procedimiento previsto en la Ley

26ko 30/1992 Legean ezarritako bideetatik edozein erabiliz.

*3. artikulua.–* Ekonomi baliabideak.

1.– Agindu honetan zehaztutako diru-laguntzetarako LAUREHUN ETA HOGEITA HAMAZORTZI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEI EURO (438.760,00 euro) erabiliko dira 2004 urtean. Zenbateko hori EAEko aurrekontu orokorretan berariaz ezarritako aurrekontu-ataletik aterako da.

2.–Zenbateko hori honela banatuko da:

a) Nazioarteko kirol-lehiaketetarako diru-laguntzak: 393.760 (hirurehun eta larogeita hamairu mila zazpirehun eta hirurogei) euro.

b) Kirola zabaltzeko jardueretarako diru-laguntzak: 45.000 (berrogeita bost mila) euro.

3.– Artikulu honetan jaso den guztirako zenbatekoa aldatu egin ahal izango da, eskatutako diru-laguntzen guztirako zenbatekoa kontutan harturik, Kultura Sailean beste laguntza-egitasmo batzuk bideratu ondoren aurrekontuak ahitu gabe geratu badira. Adierazitako aldaketa diru-laguntzak ebatzi baino lehen egin behar da, eta horren berri emango da Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen ebazpen baten bitartez.

*4. artikulua.–* Daten gaurkotzea.

Kultura sailburuaren 2003ko ekainaren 18ko Aginduan, nazioarteko kirol-gertakariak eta kirola zabaltzeko jarduerak burutzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duenean, 2003 urteari buruz egiten diren aipamenak, 2004 urteari egin behar zaizkio deialdi honetan.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.–*** Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Kultura sailburuari hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan bi hilabeteko epean, agindua aldizkari ofizial horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

***Bigarrena.–*** Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko apirilaren 21a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 3.–* Recursos económicos.

1.– Se destina al objeto de las ayudas a las que se refiere la presente Orden, durante el presente ejercicio 2004, la cantidad de CUATROCIENTOS TREINTA Y OCHO MIL SETECIENTOS SESENTA EUROS (438.760,00 euros), con cargo a la partida presupuestaria establecida al efecto en los Presupuestos Generales de la CAPV.

2.– El importe global se desglosará de la siguiente manera:

a) Ayudas a competiciones deportivas de carácter internacional. 393.760 (trescientas noventa y tres mil setecientos sesenta) euros.

b) Ayudas para actividades de divulgación deportiva. 45.000 (cuarenta y cinco mil) euros.

3.– El importe global consignado en este artículo podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Cultura y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

*Artículo 4.–* Actualización de fechas.

A los efectos de la presente convocatoria, las referencias que en la Orden de 18 de junio de 2003 de la Consejera de Cultura, por la que se establecen las normas que regulan la concesión de subvenciones para competiciones deportivas de carácter internacional y actividades de divulgación deportiva, se hacen al año 2003, han de entenderse efectuadas al año 2004.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.–*** Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

***Segunda.–*** La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de abril de 2004.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.